

TRANSIZIO ENERGETIKORAKO BIZKAIA PROGRAMAREN OINARRIAK 2023- 2024KO IKASTURTERAKO

XEDAPEN OROKORRAK

Bizkaia Talent irabazi-asmorik gabeko elkarte da, eta ondo baino hobeto prestatutako pertsonak bertan geratzeko, erakartzeko eta inplikatze baldintzak eta prozesuak bultzatzea eta suspertzea dauka helburu eta, horretarako, Bizkaiko erakundeen berrikuntzaren eta jakintza aurreratuaren arloak sustatzen ditu.

Honako hauexek dira Bizkaia Talent eratzen duten bazkideak: Bilbao Bizkaia Kutxa (BBK), BEAZ, CIC bioGUNE, Tecnalía, Iberdrola, Idom, ITP Aero, Mondragon, Sener, Deustuko Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea eta Bizkaiko Foru Aldundia. Gainera, azken instituzio horretako Ekonomia Sustatzeko Saila da elkarteburua.

Gaur egungo egoeran, trantsizio energetikoa beroketa globala arintzeko ekintza klimatikoen beharretik sortzen da. Kyotoko Protokoloan, 1997an, berotegi-efektuko gasak identifikatu ziren beroketa globalaren eragile gisa, eta, Parisko Akordioan, 2012an, helburu moduan zehaztu zen beroketa globala 2°C-tik behera mugatzea 2050. urtean. Egungo eredu energetikoa erregai fosiletan oinarritzen da gehienbat, eta erregai fosilek berotegi-efektuko gasak sortzen dituzte, CO₂, batez ere. Beraz, beharrezkoa da erregai fosilekiko menpetasuna murriztuko duen trantsizio energetikoa gauzatzea, eta horrek CO₂rik igortzen ez duten beste energia-iturri batzuetara aldatzea dakar, hala nola berriztagarrietara, eta energiaren sorreran nahiz kontsumoan kudeaketa eta eraginkortasuna hobetzeko neurriak hartzea. Trantsizio energetiko horrek eragina izango du egungo kontsumo-ereduetan hainbat esparrutan, hala nola energia elektrikoaren sorreran, garraioan eta mugikortasunean, hiri/bizitegi kontsumoan eta industrian. Izan ere, eredu horiek egokitu egin beharko dira datozen 3 hamarkadetan, 2050eko helburua betetzeko.

Ildo horretan, Bizkaiko Foru Aldundiaren **Bizkaia Egiten Planean** lehenetsitako estrategien barruan, **EIC - Energy Intelligence Center** proiektua garatzen ari da. Zentro horrek Bizkaia nazioarteko erreferente bihurtuko du energia-sektorean eta trantsizio energetikoan, eta euskal energia-sektorearen lehiakortasuna eta lidergoa sendotzen lagunduko du. Lortu nahi den helburua energia sortzeko eredu berriak garatzea da, abangoardiako teknologien bidez Bizkaian trakzio-efektua izango duten proiektu handien garapena bultzatzeko eta sektorea eraldatzen laguntzeko, etorkizuneko eskakizunetara egokitu nahian.

Esparru horretan, Bizkaia Talentek kudeatuko duen Trantsizio Energetikorako 2023-2024ko Bizkaia Programaren bigarren deialdia aurkeztu du Bizkaiko Foru Aldundiak. Programa horrek ondo baino hobeto prestatutako pertsonak ditu xede, eta unibertsitateek trantsizio energetikoaren sektorean eskaintzen duten prestakuntza espezializatua ematea du helburu, haien prestakuntza hobetzeko eta egoera global berrira egokitzeko.

Bizkaiko trantsizio energetikoaren garapenak, eskaintzen dituen aukeren bidez, behar besteko abagunea emango dio lurraldeari, energia-munduan abangoardia izaten jarraitzeko, berritzeko eta talentua zein inbertsioa erakartzeko. Horregatik guztiagatik, Trantsizio Energetikorako 2023-2024ko Bizkaia Programaren helburua trantsizio energetikoaren sektorean prestakuntza, jakintza eta gaitasunen garapena maila gorenean sustatzea da, Bizkaiak energia-iturri berriak garatzen lagunduko duten eta energiaren sorkuntzan nahiz kontsumoan kudeaketa eta eraginkortasuna hobetuko duten profesional prestatuak izan ditzan.

Toki-erakundeen eta unibertsitateen arteko lankidetzak funtsezkoa da kalitateko prestakuntza eskaintzeko. Horregatik, beharrezkoa da unibertsitateek aliatu gisa duten zeregina indartzea, Bizkaia-erakundearen etorkizuneko garapenari eta oparotasunari lagunduko dien epe luzeko harreman-esparru egonkorra sortzeko eta Bizkaiko Foru Aldundiaren

lan-ardatz nagusiei lehentasuna emateko, horietako bat trantsizio energetikoa dela kontuan hartuta.

1. XEDEA

Programak ondo baino hobeto prestatutako pertsoneri eman nahi die trantsizio energetikoarekin lotutako prestakuntza espezializatua egiteko aukera. Horretarako, horren kostuaren zati bat edo kostu osoa finantzatu die, sektore energetikoaren eraldaketa bultzatzeko.

2. ONURADUNEN BALDINTZAK

Honako eskakizun hauek betetzen dituzten pertsona fisikoek eman ahal izango dute izena Trantsizio Energetikorako 2023-2024ko Bizkaia Programan:

1. Trantsizio energetikoarekin lotutako jakintzetan sakondu nahi dutenak, betiere, honako eskakizun hauetakoren bat betetzen badute:
 - a) Bizkaian jaiotakoak izatea.
 - b) Administrazio-azotasuna Bizkaian izatea eta eskabideak aurkezteko epea ireki aurreko 36 hilabete (3 urte) baino gehiagoko antzintasuna edukitzea. Dena dela, zenbaketa horren inguruko salbuespenak onartu ahal izango dira, ikasketengatik edo lanagatik izangaiak aldi batean Bizkaitik kanpo bizi behar izan badira.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate batek 2023-2024ko ikasturterako trantsizio energetikoaren esparruan eskaintzen dituen espezializazioko master-ikasketak egiteko eskabidea aurkeztu izana (masterra 2023an hasi duten ikasleak) eta bertan onartua izatea, betiere, oinarri hauetako 3. puntuan (finantzaketaren helburu diren masterren azalpena) zehaztutako betekizunak betetzen badituzte.

3. FINANTZATUKO DIREN MASTERREN BALDINTZAK

1. Masterra **2023-2024ko ikasturtean** garatu beharko da.
2. Masterra **Euskal Autonomia Erkidegoan** eman beharko da.
3. Unibertsitate-masterreko tituluan, **60 ECTS** kreditu egin beharko dira gutxienez.
4. Hautatu daitezkeen unibertsitate-masterretako irakas-programa trantsizio energetikoko prestakuntza espezializatua sortzeko egon beharko da diseinatuta, eta honako alderdi hauek sustatu beharko ditu, besteak beste: **energia-modu berrien garapena**, erregai fosilen erabilera eta berotegi-efektuko gasen isuria murrizteko; **sistema elektronikoak**; **teknologia berriak**; **robotika**; **sistema energetiko jasangarri eta eraginkorrak**; **hornikuntza eta hornidura energetikoaren segurtasuna**; **sorkuntza elektriko berriztagarri eta jasangarrirako** prozesuak; **kontsumo energetiko orekatua** bultzatzen duten prozesuak; energia berriztagarriak sistema elektrikoan **integratzeko prozedurak...**

Finantzaketa lortzeko, master horiek honako eskakizunetakoren bat bete beharko dute:

- Unibertsitate-masterrek behar besteko jakintzak eta tresnak eskaini beharko dituzte, erregai alternatiboak garatzeko; hidrogenoa, esaterako.
- Unibertsitate-masterrek diseinu berriaren sorrera bultzatu beharko dute industriaren sektoreko fabrikaziorako eta kontrolerako prozesuetan.
- Unibertsitate-masterrek robotikak energia garbietan izan dezakeen ezarpenari buruzko jakintzak eskaini beharko dituzte, kutsadura murrizteko eta eraginkortasun energetikoa erdiesteko.

- Unibertsitate-masterrek ekipamendu elektrikoaren garapenarekin lotutako jakintza eskuratzea izan beharko dute helburu, energia berriztagarriak sistema elektrikoan integratu ahal izateko.
- Unibertsitate-masterrek diziplina anitzeko ikuspegitik eskaini beharko dituzte energia biltegitatzeko eta bihurtzeko prozesuei buruzko jakintzak.
- Unibertsitate-masterrek energia sortzen duten lantegien egiturari buruzko jakintzak eskuratzea izango dute xede, gaur egun egon badaudenak eta haien etorkizuneko bilakaera kontuan hartuta.
- Unibertsitate-masterrek behar besteko prestakuntza eskainiko dute, hainbat ezarpen dituzten sistema elektronikoen berriztaileak garatzeko.
- Unibertsitate-masterrek behar besteko prestakuntza eskaini beharko dute Smartgriden osagai nagusiak kontrolatzeko eta kudeatzeko sistemen diseinuaren, integrazioaren eta analisiaren arloan.
- Unibertsitate-masterrek ingeniarietako goi-mailako jakintza teknikoak eskaini beharko dituzte eraginkortasun energetikoaren arloan.

4. DIRU-ZUZKIDURA, LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA ONURADUNEN KOPURUA

2023ko deialdirako diru-zuzkidura, **60.000 €-koa** izango da guztira.

Gehienez ere **30 izangai onuradunen** trantsizio energetikoaren arloko espezializazio-masterra finantzatuko da zati batez. Masterra finantzatzeko orduan, onuradunek **2.000na €** jasoko dituzte, eta zenbateko hori ez da inolaz ere matrikularen kostua baino handiagoa izango.

Deialdi honetan esleitu ez diren beka, osorik esleitzerik ez badago, 2024ko deialdirako utzi ahal izango dira, programa honen bigarren edizioan eskainitako beken kopurua handitzeko.

Bizkaia Talentek behar besteko eskubidea izango du, 2023ko deialdian esleitu beharreko diru-zuzkidura eta beken kopurua handitzeko.

5. DEIALDIKO EPEAK

Eskabideak aurkezteko epea martxoaren 22ko 14:00etan hasi eta hurrengo inguruabarretakoren bat gertatu arte iraungo du:

- a. Aurrekontu erabilgarria agortzea.
- b. Eskabideen kopurua edota eskuragarri dauden beste datu batzuk kontuan hartuta, aurrekontu erabilgarria agortu egingo dela ulertzea.
- c. 2023ko **urriaren 30eko 14:00etara** iristea.

Azken ebazpena: 2023ko azaroaren 30a.

Bizkaia Talentek fase bakoitzeko epeak luzatu ahal izango ditu programaren beharren arabera.

6. ESKABIDEA EGITEKO PROZESUA

6.1. Eskabideari buruzko informazio orokorra

Deialdi honi buruzko informazioa hementxe egongo da eskuragarri:
<http://www.bizkaiatalent.eus>

Trantsizio Energetikorako 2023-2024ko Ikasturteko Bizkaia Laguntza Programan parte hartu nahi duten izangai hautagarriek laguntza eskatu ahal izango dute, honako

hauexen bitartez eskabidea behar bezala aurkeztu ahal izateko: posta elektronikoz (bizkaiatenergia@bizkaiatalent.eus), telefonoz (+34 94 479 54 28) edo aurrez aurre, Bizkaia Talenteko bulegoan aurretiazko hitzordua eskatu ondoren.

Eskabideak 2023ko **urriaren 30eko 14:00etara** arte bidali ahal izango dira, eta Trantsizio Energetikorako 2023-2024ko Bizkaia Programara aurkezteko beharrezkoak diren agiriak atxiki beharko dira bertan.

Bizkaia Talentek beharrezkotzat jotzen dituen agiri edota informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu ebaluazio-prozesuko edozein unetan, aurkeztutako eskabidea behar bezala ulertu eta balioetsi ahal izateko.

Eskatzaileek prozesu osoan aurkeztutako informazioaren edota agirien benetakotasunaren eta egiazkotasunaren gaineko erantzukizuna izango dute.

6.2. Eskabideen aurkezpena

Eskabidea eta eskatutako agiriak e-postaz baino ez dira aurkeztuko posta elektronikoko helbide honetan: bizkaiatenergia@bizkaiatalent.eus

7. ESKATUTAKO AGIRIAK ETA LAGUNTZAREN IZAPIDETZA

Izangaitza gauzatzeko orduan, ezinbestekoa izango da eskatutako agiriak posta elektronikoz bidaltzea.

Honako hauxe izango da posta elektronikokoaren gaia: **Transferentzia Energetikorako Bizkaia Programa: eskatzailearen izena eta 2 abizenak**. Eskabide-orrian, laguntzaren xede den master zehatzaren izen osoa, unibertsitatea eta non ematen den adierazi beharko da, baita honako agiri hauek ere:

Nahitaezko agiriak:

- a) NANaren edo AIZaren fotokopia.
- b) Erroldatze-ziurtagiri (Bizkaian jaio ez direnek bakarrik entregatu behar dute dokumentu hau).
- c) Bankuko titularitatearen ziurtagiria. Honako hauxe agertu beharko da agirian: titularraren izena, kontu-zenbakia eta banku-erakundeko bulegoaren zigilua.
- d) Norberaren Datuak Babesteko Klausula (I. ERANSKINA): izangaiaren NANA nahiz izena eta bi abizenak zein diren adierazten duen ale sinatua.
- e) Zinpeko adierazpena: eskabidean, honako hiru agiri hauetako bat erantsi beharko da, izangaiak deialdi honen helburu bererako beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jaso dituen edo jaso ez dituen kontuan hartuta:
 - ✓ Programa honen helburu bererako **beste laguntza batzuk jaso ez dituela eta beste laguntza batzuei buruzko ebazpenaren zain ez dagoela** azaltzen duen zinpeko adierazpena (II. ERANSKINA): izangaiaren NANA nahiz izena eta bi abizenak zein diren adierazten duen ale sinatua.
 - ✓ Programa honen helburu bererako **beste laguntza batzuk jaso dituela** azaltzen duen zinpeko adierazpena (III. ERANSKINA): izangaiaren NANA nahiz izena eta bi abizenak zein diren adierazten duen ale sinatua. Laguntza zer erakundek eman duen eta zenbatekoa izan den adierazten duen agiri ofiziala aurkeztu beharko da.
 - ✓ Programa honen helburu bererako **beste laguntza batzuk eskatu dituela eta ebazpenaren zain dagoela** azaltzen duen zinpeko adierazpena (IV. ERANSKINA): izangaiaren NANA nahiz izena eta bi abizenak zein diren adierazten duen ale sinatua. Laguntza zer erakunderi eskatu zaion eta zenbatekoa izango den adierazten duen agiri ofiziala aurkeztu beharko da.
- f) Masterra ematen duen unibertsitateak egindako onarpen-ziurtagiri ofiziala, unibertsitate batek Euskadin 2023-2024ko ikasturtean trantsizio energetikoaren arloan emandako espezializazioko master-ikasketak egiteko asmoz onartuak izan direla eta masterraren matrikula ordaindu dutela egiaztatzeko. Ziurtagiri horretan,

izangaia nor den adierazi beharko da (izena, bi abizenak eta NAN zenbakia), eta espezializazioko masterraren titulua agertu beharko da, baita ECTS-en kopurua, ikasturtea eta prezio ofiziala ere.

Eskatzaileek eskatutako datu eta agiri guztiak atxiki beharko dituzte. Eskatzaileek sartutako datuen eta eskatutako agirien nahiz haien egiazkotasunaren gaineko erantzukizuna izango dute, baita datu garrantzitsuak ez aipatzeagatikoa ere.

8. HAUTATZEKO PROZESUA

Laguntzak esleitzeko hautaketa-sistema honako irizpide hauen arabera egingo da:

- a. Fondoak eskabideen erregistroaren hurrenkeraren arabera banatu eta izapidetuko dira. Jasotako eskabidearen mezu elektronikoan adierazitakoa izango da data.
- b. Deialdian zehaztutako eskakizunak betetzen dituzten eskabide guztiei emango zaie laguntza, harik eta aurrekontu erabilgarria agortu arte edo deialdiaren indarraldia amaitu arte edo, hala badagokio, deialdia aldeztetik itxi arte.
- c. Posta elektronikoa honetan jasotako eskabideak baino ez dira onartuko:
bizkaiatenergia@bizkaiatalent.eus

Agiriren bat aurkeztu ezean, Bizkaia Talent izangaiarekin jarri ahal izango da harremanetan, deialdiko epearen eta bertako langileen prestasunaren arabera hori egiterik badago.

Akatsen bat ikusten badute, izangaiek kasuan kasuko jakinarazpena bidali ahal izango dute hona: bizkaiatenergia@bizkaiatalent.eus

Trantsizio Energetikorako Bizkaia Programako laguntzak bateragarriak izango dira Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio edo erakunde publiko edo

pribatutan edo nazioarteko edozein erakundetan helburu bererako dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin. Hala ere, ez dute finantzatutako masterraren kostua inolaz ere gaindituko, ez isolatuta ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera.

Programa honetako laguntza eman ostean, zenbateko hori gaindituko balitz, soberakinari dagokion kopuruan murriztuko da laguntza.

Trantsizio Energetikorako Bizkaia Programaren helburu bera duten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jaso dituzten eskabideak *ad hoc* ebaluatuko dira, eta masterraren guztizko kostuaren zein jasotako laguntzen arteko aldeak Trantsizio Energetikorako Bizkaia Programak laguntza osoa (2.000 €) esleitzeko aukera eskaintzen badu baino ezin izango da eman laguntza.

Jakin bezain laster, onuradunek Bizkaia Talenti jakinarazi beharko diote diruz lagundutako jarduerak finantzatzen dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu dituztela, eta, hala badagokio, egindako itzulketaren gutunaren kopia aurkeztu beharko dute.

Trantsizio Energetikorako Bizkaia Programaren lehenengo deialdiko (2022-2023) onuradunak ezin izango dituzte hautatu, 2023-2024ko deialdi honetako finantzaketa lortzeko.

9. ESLEITZEKO PROZEDURA

Laguntzak honelaxe emango dira:

Fondoak eskabideen erregistro-ordenaren arabera banatuko dira, betiere, deialdian zehaztutako baldintzak betetzen badituzte, harik eta aurrekontu erabilgarria agortu arte edo deialdiaren indarraldia amaitu arte edo aldez aurretik itxi arte.

Bizkaia Talentek, eskabide bakoitzean aurkeztutako agirietan oinarrituta zehaztutako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, programako 26 beka emango ditu, eskabidea jasotzen duen hurrenkeraren arabera. Laguntza horiek eskabidea jaso den e-postan adierazitako dataren eta orduaren arabera emango dira, eta guztira eman beharreko laguntzen muga zuzkidura ekonomikoaren atalean ezarritako zenbatekoa izango da: 60.000 euro.

Bizkaia Talentek eskabide bakoitza jaso duela jakinaraziko die posta elektronikoz jasotako eskatzaile guztiei, ahalik eta lasterren. Mezu elektronikoa hori jaso ezean, programan parte hartu nahi duenak jakin egin behar du bere mezu elektronikoa prozesatu ez dela eta, beraz, programako izangaien zerrendan agertzen ez dela.

ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Programarako eskabidea aurkeztuz gero, deialdiko oinarri hauetan xedatutakoa onartu beharko da.

Onuradunek honako hauxe egin beharko dute:

- a) Beka eman dela jakinaraztea eta bost eguneko epean beka onartzeko agiria sinatzea, salbuespenezko arrazoiengatik besterik hitzartzen ez bada.
- b) Masterra ematen duen unibertsitatearen funtzionamendu-arauak betetzea.
- c) Bizkaia Talenti programaren helburu onaren lorpenean eragina duen edozein gorabehera jakinaraztea.

10. ONURADUN-IZAERA GALTZEA

11.1.- Programaren onuradun-izaera iraungi ahal izango da, programa amaitzeaz gain, onuradunak berariaz uko egiten badio. Izangai-izaera ere galdu ahal izango da betebeharrak ez betetzeagatik, hala nola master-titulua ez lortzeagatik.

11.2.- Oinarri hauek betetzen ez badira, edozein unetan gertatzen dela ere, programa zuzenean geratuko da bertan behera. Halakoetan, onuradunak jasotako laguntza itzuli beharko du. Onuradunak aipatutako konpromisoak (edo programaren baldintzetan aipatutako beste edozein) betetzen ez baditu, programak beretzat gordetzen du egoki irizten dion moduan jarduteko eskubidea, dagokion legezko bideen bitartez.

Programaren onuradun-izaera uko egiteagatik edo ez betetzeagatik galduz gero, oro har, sortu gabeko eskubide ekonomiko guztiak galdu ahal izango dira, baita Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako edozein programatako etorkizuneko hautaketa-prozesuetatik kanpo uztea ere (behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuak, hala nola istripua, gaixotasuna...).

I. ERANSKINA

DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO KLAUSULA

Datuak Babesteko 679/2016 Araudi Orokorrean eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan jasotako informazio-betebeharra betetzeko, **jakinarazi egiten dizugu zure datu pertsonalak honako honen erantzukizunpean tratatuko direla:**

Tratamenduaren arduraduna: Bizkaia Talent (Eraberrikuntzan eta Ezagutzan Adituak diren Pertsonen Mugikortasuna Sustatzeko Elkarte)

IFK: G95326583

Egoitza soziala: Bizkaiko Parke Teknologikoa, 804 eraikina, 300 modulua - Laga bidea, 48160 Derio.

Harremanetarako e-posta: [mailto: bizkaiatenergia@bizkaiatalent.eus](mailto:bizkaiatenergia@bizkaiatalent.eus)

Tratamenduaren helburuak: prozesu honetan www.bizkaiatalent.eus webgunearen edo **e-postaren** bidez ematen dizkiguzun datuak honako honexetarako tratatuko dira:

- Zure profilaren egokitasuna ebaluatzea, Transferentzia Energetikorako Bizkaia Programako beka lortzeko.
- Zure izangaitzaren egoerari buruzko informazioa ematea.
- Komunikazio elektronikoak bidaltzea **Bizkaia Talentek** garatzen dituen jarduerari eta programei buruz.

Oinarri juridikoa

- 6.1.b artikulua. Kontratu bat egikaritzea

Zu interesdun zaituen kontratua egikaritzeko orduan beharrezkoak direlako tratatzen dira.

- 6.1.a artikulua. Interesdunaren baimena.

Transferentzia Energetikorako Bizkaia Programara izangai moduan aurkeztean eta programarako zehaztutako eta Bizkaia Talenten webgunean argitaratutako oinarriak onartzean zuk ematen duzun **berriazko baimenaren** arabera.

Datuak gordetzea: zure datuak **Bizkaia Talenten** datu-baseetan sartu eta biltegitatu egingo dira, eta jasotzen direnetik 5 urteko epean gordeko dira gutxienez.

Zure eskubideak: zeure datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko eta haien tratamendua mugatzeko eskubideak erabili ahal izango dituzu tratamenduaren arduradunaren aurrean. Horretarako, mezu elektronikoa bidali beharko duzu rgpd@bizkaialalent.eus posta elektronikora, zer eskubide erabili nahi duzun adierazi beharko duzu bertan eta zeure NANaren edo agiri baliokidearen kopia atxiki beharko duzu.

Gure pribatutasun-politikari buruzko informazio gehiago nahiz izanez gero, sartu hemen: <https://www.bizkaialalent.eus/politica-de-privacidad/>

Bizkaia Talentek antolatutako ekitaldiren batean izena ematen baduzu, onartu egiten duzu Bizkaia Talentek edo Bizkaiko Foru Aldundiak bertan hartzen dizkizuten irudia eta ahotsa erabiltzea ikus-entzunezkoen sorreran, euren sare sozialetan edo komunikabideetan zabaltzeko eta sustapen zein merkataritza arloko helburuak betetzeko. Ados ez bazaude, mezu elektronikoa idatzi rgpd@bizkaialalent.eus eta bizkaiatenergia@bizkaialalent.eus helbidetara.

Informazio gehiago lortzeko, gure pribatutasun-politika bisitatu besterik ez duzu.

IZEN-ABIZENAK: _____

NAN/AIZ: _____

_____ (e)n, 2023ko _____ aren ____ (e)(a)n.

(Eskatzailearen sinadura)

II. ERANSKINA
ZINPEKO ADIERAZPENA
EZ DA BESTE LAGUNTZARIK JASO EDO ESKATU

IZEN-ABIZENAK:

NAN/AIZ: _____

jaunak/andreak, _____ zenbakidun NAN/pasaportearen duenak, Trantsizio Energetikorako 2023-2024ko Ikasturteko Bizkaia Programako eskatzaile moduan,

HONAKO HAUXE ADIERAZTEN DU ZINPEAN:

Ez ditu jaso Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutan edo nazioarteko edozein erakundetan helburu bererako dituzten (deialdiaren xede den master-prestakuntza espezializatua finantzatzea) beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk.

Ez dago Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutan edo nazioarteko edozein erakundetan helburu bererako dituzten (deialdiaren xede den master-prestakuntza espezializatua finantzatzea) beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuei buruzko **ebazpenaren zain**. Halaxe agertu dadin, adierazpen hau sinatzen du

_____ (e)n, 2023ko _____ aren ____ (e)(a)n.

(Eskatzailearen sinadura)

III. ERANSKINA
ZINPEKO ADIERAZPENA
JASOTAKO BESTE LAGUNTZA BATZUEN ZERRENDA

IZEN-ABIZENAK:

NAN/PASAPORTEA _____

jaunak/andreak, _____ zenbakidun NAN/pasaportea duenak, Trantsizio Energetikorako 2023-2024ko Ikasturteko Bizkaia Programako eskatzaile moduan,

HONAKO HAUXE ADIERAZTEN DU ZINPEAN:

Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutan edo nazioarteko edozein erakundetan helburu bererako dituzten (deialdiaren xede den master-prestakuntza espezializatua finantzatzea) beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk **jaso ditu**.

Trantsizio Energetikorako Bizkaia Programari eskatutako laguntza zenbatekoa den kontuan hartuta, ez du finantzatutako masterraren kostua inolaz ere gainditzen, ez isolatuta ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera. Hori egiaztatzeko asmoz, agiri honetan eransten dut beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuen lorpena, laguntza hori eman didan agintaritzaren eskudunak egindako ziurtagirien kopiaekin batera.

Halaxe agertu dadin, adierazpen hau sinatzen du

_____ (e)n, 2023ko _____ aren ___(e)(a)n.

(Eskatzailearen sinadura)

IV. ERANSKINA
ZINPEKO ADIERAZPENA
ESKATUTAKO BESTE LAGUNTZA BATZUEN ZERRENDA

IZEN-ABIZENAK:

NAN/PASAPORTEA _____

jaunak/andreak, _____ zenbakidun NAN/pasaportea duenak, Trantsizio Energetikorako 2023-2024ko Ikasturteko Bizkaia Programako eskatzaile moduan,

HONAKO HAUXE ADIERAZTEN DU ZINPEAN:

Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutan edo nazioarteko edozein erakundetan helburu bererako dituzten (deialdiaren xede den master-prestakuntza espezializatua finantzatzea) beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk **eskatu ditu, eta ebazpenaren zain dago.**

Trantsizio Energetikorako Bizkaia Programari eskatutako laguntza zenbatekoa den kontuan hartuta, ez du finantzatutako masterraren kostua inolaz ere gainditzen, ez isolatuta ez beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera. Hori egiaztatzeko asmoz, agiri honetan eransten dut beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuen eskabidea, laguntza hori eskatu diodan agintaritza eskudunak eskabideari buruz egindako ziurtagirien edo egiaztatagirien kopiaekin batera. Halaxe agertu dadin, adierazpen hau sinatzen du

_____ (e)n, 2023ko _____ aren ____ (e)(a)n.

(Eskatzailearen sinadura)